

## **RAMÓN SALABERRIA**

### **Jabetza intelektual liburutegian agertzen denean**

GARAI LATZAK DIRA ONDASUN PUBLIKOENTZAT; LIBURUTEGI PUBLIKOEN AURKAKO ERASOAK EZ DU ETENIK. JABETZA INTELEKTUALAREN AITZAKIAN HAINBAT XEDAPEN ONARTU DIRA DEBEKATZEKO, ESATE BATERAKO, NORBERAK ERABILTZEKO KOPIAK EGITEA EDO LIBURUTEGIEN KASUAN, DOKUMENTU DIGITALAK KONTSERBATZEKO KOPIAK ATERATZEA. EZ DA HORI, ORDEA, ARTIKULU HONEN GAIA, IZAN ERE, BESTE ARAU BATEN BIDEZ MAILEGU BAKOITZEKO DIRU KOPURU JAKIN BAT ORDAINTZERA BEHARTU NAHI DITUZTE LIBURUTEGIAK.

1992ko azaroan argitaratu zen jabetza intelektualaren esparruko alogera eta mailegu eskubideei eta egile eskubideen pareko beste eskubide batzuei buruzko Europako zuzentaraua. European hainbat herrialdetan indarrean zeuden arauak bateratzea zuen helburu. Lehenengo artikuluan dio eskubideen titularrek bakarrik baimendu edo debekatu dezaketela beren lanen mailegua eta eskubide hori ez dela agortzen lehenengo banaketarekin edo salmentarekin.

Mailegu publikoko eskubidea legeaz onartutako figura bat da, herrialde askotan erabili izan dena egileak konpentsatzeko, eta zenbait kasutan, zenbaitetan bakarrik, baita editoreak ere, beren lanak liburutegi publikoetan erabiltzearen truke; toki batzuetan unibertsitateetako eta ikastetxeetako liburutegiak eta liburutegi nazionalak ere sartzen dira neurri horren barruan. Mailegu publikoko eskubidea liburutegi sistema sendoa eta mailegu kopuru altuak dituzten herrialdeetan sortu eta garatu zen. Orain Europako herrialde guztietara zabaldu nahi da neurria, liburutegi onak eta mailegu kopuru altua izan edo ez kontuan hartu gabe (hori da, hain zuzen, Espainiako egoera, ikastetxeetan ez dago ia liburutegirik eta liburutegi publikoak Europako batez besteko mailatik urruti baino urrutiago daude). Beste ezaugarri bat da onartu ziren aurreneko legeak hiztun kopuruari begiratuta gutxitutzat har ditzakegun hizkuntzak babesteko eta irakurketa sustatzeko sortu zirela: Danimarkan (1946), Norvegian (1947), Suedian (1955), Finlandian (1961) eta Islandian (1963). Lege horien arabera, herri horietako hizkuntzan idazten zuten egileen liburuak maileguan hartzeagatik bakarrik ordaindu behar zen; gainerako hizkuntzetako idazleen liburuak hartuz gero ez zegoen ordaindu beharrik.

Gogoan hartzeko datua: zuzentaraua onartzeko orduan estatu guztien adostasuna lortzeko 5. artikuluan salbuespen batzuk sartu behar izan ziren, eta horren ondorioz estatuak eskubidea dute zenbait liburutegi mota ordaindu behar horretatik kanpo uzteko. Aukera hori hartu zuen, hain zuzen, Espainiak, eta gaur egun indarrean dagoen jabetza intelektualaren legearen bidez arautu zuen alderdi hori. Salbuespen batzuk jarri zituen, horien artean aipatzekoak liburutegi publiko guztiek eta diru irabazi asmorik ez duten elkarten ardurapeko erabilera publikoko liburutegiek ez dutela ezer ordaindu beharrik.

## **Liburutegiak premia larrian**

Espainiako liburutegi sistemak ez du aurkezpen beharrik, jakina baita zenbat gabezia duen, eta urtetan eta urtetan herritarrei liburutegietara joateko eskubidea ukatu zaiela. Agian interesgarriagoa izango da hainbat datu ematea eta Europako beste herrialde batzuetakoekin alderatzea, izan ere, herrialde horien parean jarri nahi baikaituzte, baina ordaintzeko orduan bakarrik.

2005. urtean lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleek oraindik ezin dute liburutegi edo dokumentazio zentro batera jo, ikastetxe eta institutu gehienetan ez baitago liburutegirik. Unibertsitateetako liburutegiek, ordea, beste bide batetik jo dute, zorionez. 1981 eta 2002 bitartean unibertsitateetako liburutegietan ikasle bakoitzeko zegoen langile kopurua hirukoiztu egin zen, ikasle bakoitzeko azalera bikoiztu egin zen, liburutegi gastua hamar aldiz handitu zen eta ikasle bakoitzeko liburu kopurua nabarmen handitu zen, 9'9tik 21'8ra, hain zuzen.

Baina mugatu gaitzen liburutegi publikoetara, horiek egiten baitituzte maileguen bi heren baino gehiago (%68). Azken hamabost urteetan liburutegi kopurua %62 hazi da, fondoak %85 eta erabiltzaileak %141. Hala ere, oraindik liburutegi publikoa erabiltzen duen herritarren ehunekoa %20ra baino ez da iristen; Europan, berriz, herritarren erdiak erabili ohi du, batez beste. Administrazioek –zentralak, erkidegoetakoek eta batez ere udalek- egiten dituzten inbertsioak ozta-ozta iristen dira Europako Batasunean batez beste egiten diren inbertsioen herenera. 2000. urtean Espainiako liburutegiek 0'67 euroko gastua egin zuten biztanleko dokumentu berriak eskuratzeko; bi urte lehenago, Europako Batasunean 1'88 euroko gastua egin zuten batez beste, hau da, hiru aldiz gehiago. Adibide batzuk horren lekuko: Danimarkan liburutegi publikoek bi biztanleko liburu bat eskuratzen dute, Finlandian hiru biztanleko bat eta Espainian, berriz, hogeita bi biztanleko bat.

Orain azter ditzagun maileguak. 2000. urtean Espainiako liburutegiek hamar urte lehenago baino ia halako bi mailegu egin zuten (0'77 mailegu biztanleko eta urteko); hala ere, Europako Batasuneko datuekin alderatuz gero datu hori urruti gelditzen da, 1998. urtean 4'93 mailegu egin baitziren batez beste biztanleko, hau da, sei aldiz gehiago. Beste modu batera esanda, Espainiako liburutegi publikoen maileguak gaur egun duten erritmoan haziko balira, 2030. urtean lortuko lukete Europakoek 1998an zuten batez bestekoa. Azken datuak: 1996. urtean Herbehereetako liburutegi publikoek 11'10 mailegu egiten zituzten biztanleko eta urteko; Erresuma Batukoek, 9'20 eta Espainiakoek, 0'62.

## **Mobilizazioa**

2004ko lehenengo egunetan, Europako Batasunak informazio espedientea ireki zien hainbat herrialderi (Espainia, Italia, Portugal...) eta zuzentaraua aplikatzeko moduari buruzko argibideak eskatu zizkien. Liburutegien inguruan inoiz izan den mugimendurik handiena sortu zen horrela. Hilabete gutxiren buruan alorreko profesionalentzako jardunaldiak antolatu ziren gaia aztertzeko, eta adin eta estilo guztietako 400 idazlek baino gehiagok (Delibes, Gopegui, Regás, Marsé, Erice, Lindo, Puertolas, Saramago, Savater, Lledó, Lóriga, Trapiello, Carme Riera...), unibertsitateko 500 irakaslek eta liburutegiak erabiltzen dituzten 200.000 herritarrek baino gehiagok mailegu kanona ezartzearen aurkako manifestua sinatu zuten.

Irailean Espainiako Gobernuak alegatua aurkeztu zuen Europako Batzordean, baina Batzordeak ez zituen arrazoiak nahikotzat jo eta auzia jarri zion Espainiako Gobernuari Europako Justizia Auzitegian. Jabetza eskubideen kudeaketaz arduratzen diren sozietate indartsuen abokatu zerrenda luzea hasi da dagoeneko hortzak zorrotzen.

RAMON SALABERRIA liburuzaina da. Oaxacan bizi da, Mexikon.